

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren balorazioa, gaur, 2018ko apirilaren 20an argitaratu den ETAREN adierazpenaren kariatara

Ostirala, 2018.eko apirilak 20

Nafarroako Gobernuak, gaur, apirilaren 20an argitaratu den ETAREN adierazpenaren kariatara ondoko balorazioa egin du:

“ETA banda terrorista desegitea gure gizarteak aspaldidanik egindako eskakizuna da. Ildo horretan, Gobernu honen posizioa argia eta irmoa izan da: ETAK armak entregatuko zituela esaten zenean, guk adierazi genuen armagabetzea erabatekoa, aldebakarrekoa eta behin betikoa izan behar zuela. Orain badirudi iritsi dela desegiteko unea, eta garrantzitsua da desegitea behin betikoa, benetakoa eta aldebakarrekoa izatea. Desegiteak ez du zalantzetarako zirrikiturik utzi behar; argia eta erabatekoa izan behar du eta prozesu hori bukatu arte itxaron beharko da Gobernuak bere lanean izan behar duen zorrotasunarekin eta erantzukizunarekin baloratu ahal izateko.

Gaur argitaraturiko adierazpenari dagokionez, Gobernu honek uste du urrats bat dela ETA desegiteko bidean, bai eta ere biktimei eragindako mina eta horretan izandako erantzukizuna aitortzeko bidean. Gure gizartean bizikidetzaren hautsi zuten uste izan zutenek armak hartuta beste pertsona batzuk eraso zitzaizketela, ideia edo proiektu baten ustezko defentsan.

Benetako eta bidezko bizikidetzaren eraikuntza bada, nahitaezkoa da oinarri etiko argi eta erabateko batzuk finkatzea, aitortuz Giza Eskubideak, bizitza eta giza duintasuna eztabaidaezinak eta erasoezinak direla. Modu horretara soilik, iraganarekiko begirada zinez kritikoa abiatuz, erantzuten ahalko diegu biktimek egia, justizia eta erreparazioa izateko duten eskubideari, eta, alde horretatik, adierazpen honek gabezia nabarmenak ditu, ETAREN indarkeria bidegabea eta zurituezina izan zelako kasu orotan.”